



3. Ereduak

Nabaria da *egoera-diagraman* zein *egoera-taulan* zirkuituaren irteera ez dela adierazi. Izan ere, sistemaren sarrerek sistemaren irteeran duten eraginaren arabera, bi adierazpen ezberdin daude. Batean, irteeren balioa *oraingo egoeraren* menpekoa da (192. Irudia), eta bestean, sarreraren balioak ere badu eragina (193. Irudia). *Moore* eredu eta *Mealy* eredu deritzegu, hurrenez hurren.




192. Irudia




193. Irudia

SSSren egitura orokorra eredu baktzera moldatzen badugu, *Mealy* ereduaren adierazpen grafikoa 194. Irudian ikus daiteke, eta Moore ereduari dagokiona 195. Irudian.




194. Irudia




195. Irudia

Horiek horrela, irteeraren adierazpena ezberdina izango da, ereduaren arabera, SSSren egoera-diagraman. Moore ereduarekin, sistemaren egoerari elkartuta egongo da sistemaren irteera (196. Irudia), eta Mealy ereduarekin, trantsizio-gezieta idatzitako sarrera bakoitzari elkartuko zaio irteera (197. Irudia).



196. Irudia



197. Irudia

Halaber, egoera-taulan aldaketak egongo dira erabilitako ereduaren arabera. Hala, irteera bakoitzeko zutabe berria gehitu beharko zaio taulari Moore ereduaren erabiliz gero (198. Irudia), eta Mealy-ren kasuan, ordea, *hurrengo egoera* bakoitzari irteera esleituko zaio (199. Irudia).

	$X_1X_2...X_i$			
	0..0	0..1	0..10	...
A	B/ $Z_1..Z_j$	C/ $Z_1..Z_j$		
B	C/ $Z_1..Z_j$	A/ $Z_1..Z_j$		
N	N/ $Z_1..Z_j$	A/ $Z_1..Z_j$		

↑
Oraingo Egoerak. Hurrengo Egoerak.
{ $Q_0 Q_1 ... Q_i$ } { $Q_0^* Q_1^* ... Q_i^*$ }

198. Irudia

	$X_1X_2...X_i$						
	0..0	0..1	0..10	...	Z_1	...	Z_j
A	B						
B	C						
N	N						

↑
Oraingo Egoerak. Hurrengo Egoerak.
{ $Q_0 Q_1 ... Q_i$ } { $Q_0^* Q_1^* ... Q_i^*$ }

199. Irudia